

Gure enpresak bi zerbitzu eskaintzen ditu. Hasteko, landareak zaintzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Esate baterako, oporretan joanez gero zuen landareak zaintzeko prest gaude. Gure ustez, familia bat oporretara joaten denean, oso neketsua da norbaiti esatea etxean dauden landareak zaintzen dituela, eta horregatik pentsatu dugu ideia hori lagungarria izan daitekeela, batez ere familiak eta, batez ere, adineko pertsonak lasai joan daitezen eta gehiago bidaiatzera animatzeko. Gainera badakigu familia batzuek ez dutela landareak zaintzeko inor, eta horregatik uste dugu zerbitzu hori ideia ona izan daitekeela familien lasaitasunari lehentasuna emateko.

Bigarren zerbitzuari dagokionez, prest gaude landareen kurtsuak eskaintzeko. Kurtsu hauek aurrera eramateko, prest gaude eskoletara, intitutuetara eta egoitzetara gerturatzeko kurtsuak eskaintzeko. Esate baterako, erresidentzia batean prest gaude agureei kurtsuak eskaintzeko, pentsatzen dugulako, agian beraiek interesatuta egongo direla eta une on bat pasatuko dutela loreak zaintzen ikasten. Izan ere, lehen esan bezala, prest gaude eskoletako umeei ikasketak eskaintzeko pentsatzen dugulako erabilgarria izan daitekelako beraiantzat jolasten ikastea landareak zaintzeko. Era berean, pentsatzen dugu, dei bat egin ez gero, haiek tailerrera gerturatu daitezkeela. Gure aburuz, bideragarriagoa da haiek lantegira gerturatzea beste giro bat arnasteko eta erosotasun-eremutik ateratzeko. Horrela, erabat desberdina den giroan sar daitezke, eta, era berean, esperientzia hurbilago bizi dezakete.